8 JARDUTEKO PROPOSAMENAK

Esku hartzeko premiak abiapuntu izanik, landu dira errepide-plan honen xede-sarean jarduteko proposamenak, aurrez aipatu diren arazoak ebatziko dituztenak. Hiru motatako jardunak izango dira:

- Obra nagusia; programa honetan barnean hartzen dira azpiegitura berriak gauzatzea ekarriko duten jardunak edo gaur egungo ibilbideen ahalmena handitzea ekarriko duten jardunak —egungo azpiegitura bikoiztuta, hirugarren erreia gehituta, edo azpiegitura horien funtzionaltasuna ordeztuko duten trazadurarako saihesbideak edo trazadura berriak eraikita, bi erreiko errepideen ezaugarriekin izan zein autobiako ezaugarriekin izan—.Obra nagusitzat jotzen dira, halaber, autobideetarako, autobietarako eta galtzada bikoitzeko bideetarako sarbideak eta loturak eraikitzearekin eta berrantolatzearekin lotzen diren jardunak.
- Egokitzapena; egokitzapentzat jotzen dira errepideen trazaduraren ezaugarri geometrikoak eta zeharkako sekzioa hobetzeko egiten diren jardunak, egungo galtzaden gainean jardunda; era berean, programa honetan sartzen dira jardun zehatzen bidez sareko tarte arriskutsuetan segurtasuna areagotzen duten jardunak.
- Hiri-saihesbideak; kanpoko bide bat edo ingurabide bat eraikita hirigune baten zeharbidea ebazteko egiten diren jardunak.

Obra nagusiko programa, halaber, azpiprograma hauetan banatu da:

- Azpiegitura berriak; azpiprograma honetan barnean hartzen dira gaur egun ez dagoen komunikazio-bide bat definitzea eta eraikitzea xede duten jardunak, edo gaur egun zerbitzuan dagoen komunikazio-bide baten trazadura independente bidez aldaketa funtzionala egitea xede duten jardunak.
- Galtzada bikoiztea; azpiprograma honetan, xedea da galtzada bakarreko errepide bat galtzada bereiziko errepide bihurtzea, beste galtzada bat eraikita —beste galtzada hori, oro har, aurrez dagoen galtzadatik oso hurbil eta, gutxi gorabehera, paraleloan eraikitzen da—. Jardun horretan barnean hartzen dira gaur egungo trazaduraren aldaketak, trenbide-pasaguneen ezabatzeak, sarbideen berrantolamendua eta, oro har, autobiaren edo autobidearen ezaugarriak lortzeko beharrezkoak diren aldaketak.
- Ahalmena handitzea; azpiprograma honetan sartzen dira, batetik, ahalmen mugatuko errepideetan, autobiako ezaugarriak dituen galtzada bikoitza eraikitzeko lanak —oro har, egungo trazaduraren aldaketa handia ekarriko dute—, eta, bestetik, gehiegizko trafiko-eskaria duten ahalmen handiko errepideetan, bide-ahalmena handitzeko lanak, noranzko bakoitzean beste errei gehigarri bat, edo bi, erantsita —galtzada handituta, zerbitzu-bideak eraikita edo galtzada gehigarriak eraikita—.
- Sarbideak berrantolatzea eta kontrolatzea; jardun horiek lotzen dira bidearen funtzionaltasuna hobetzearekin, edo gaur egun errei bikoitzeko errepideak autobia bihurtzearekin, betiere ezkerretarako biraketak ezabatuta, elkarguneak hobetuta eta loturetan sarrerak eta irteerak kontrolatuko dituzten zerbitzu-bideak eraikita.
- Loturak eraikitzea eta/edo berrantolatzea: autobideetan, autobietan eta errei bikoitzeko errepideetan loturak eraikitzea eta/edo berrantolatzea.

Egokitzapeneko programa, halaber, azpiprograma hauetan banatu da:

- Sarearen egokitzapena; jardun horien xedea da gaur egungo errepidearen ezaugarri geometrikoak aldatzea, ibilbidea egiteko denbora hobetzeko, zerbitzu-maila eta segurtasuna hobetzeko eta zirkulazioaren erosotasuna areagotzeko. Horretarako, errepideen plataformak estandar desiragarrietara handituko dira, trazadurak oin-planoan eta aurretiko bistan modernizatu eta hobetuko dira, egungo trazaduren oin-planoko okupazioa aldatuko da, bidegurutzeak eta sarbideak hobetu kontrolatuko dira, eta abar.
- Sarearen trazadura hobetzea eta plataforma handitzea; errepideen plataformak handituko dira eta ezarritako premia funtzionaletarako eta errepideen segurtasunerako eskatzen diren ezaugarri geometriko minimoak betetzen ez dituzten trazadurako elementuak aldatuko dira (hala nola bihurguneak, sestra-aldaketak, bidegurutzeak eta elkarguneak).
- Bidegurutzeak berrantolatzea eta sarbideak kontrolatzea; barnean hartzen dira bidegurutze arriskutsuak hobetzeko egin beharreko lanak eta errepide-sarean dauden sarbideak distantzien eta sarrerako eta irteerako erreien ezaugarri berrietara egokitzeko egin beharreko lanak —zerbitzu egiten dieten partzeletarako sarbideak berrantolatuz—.
- Zirkulazio motelerako bideak eraikitzea; ibilgailu astunen ehuneko handia duten ibilbide konbentzionaletan zirkulazio motelerako erreiak eraikitzea, trafiko astunak maldetan duen eragina ezabatzeko eta errepidearen ahalmena eta zerbitzu-maila hobetzeko.
- Sareko zeharbideak hobetzea; egindako analisian gatazkatsu gisa diagnostikatu diren zeharbideak hobetzea.

8.1 Lehentasunezko Intereseko Sarean jarduteko proposamenak

8.1.1 Araba

Obra Nagusiaren Programan eta Azpiegitura berrien azpiprogramaan, N-104 eta A-132 errepideen arteko konexio berria planteatu da. Ahalmena handitzeko azpiprogramaan, berriz, N-104 errepidean beste galtzada bat sortzea proposatzen da, zehazki A-2134 errepideko (Ilarratzako saihesbideko) bidegurutzearen eta A-3110 errepideko bidegurutzearen artean, guztira 2,04 km osatuz.

Obra nagusi gisa, eta galtzada bikoizteko azpiprogramaan, N-124 errepideko 24,5 kilometro-puntutik 35,3 kilometro-puntura —Armiñongo lotura eta Briñas artean— galtzada bikoiztea planteatu da. Nahiago izan da galtzada bikoiztea, egiturazko izaera handiagoa duten beste soluzio batzuen aurretik (ibilbide berrien aurretik adibidez). Horretarako, ingurumen-integrazioaren beharra hartu da kontuan, bikoizketarekin egoki lortzen baita ingurumen-integrazioa.

Era berean, Obra Nagusitzat jotzen da N-240 errepidean —A-623 errepideko bidegurutzeraino, Legution — egin beharreko ahalmena handitzeko jarduna (egiturazko beste irtenbide batzuk baino irtenbide hobea da, Urrunagako urtegiaren ekialdeko ertzean ingurumenaren gaineko eraginak ezabatzeko). Jardun horren bitartez, ebatziko dira A-3006 errepideko bidegurutzearen (14,28 PK) eta A-623 errepideko bidegurutzearen artean hauteman diren ahalmen eskaseko eta bide-segurtasuneko arazoak. Era berean, N-240 errepidearen eta A-623 errepidearen arteko lotura barnean hartzen da loturak eraikitzeko eta/edo berrantolatzeko azpiprogramaren barruan (proiektuko oinarrizko irizpideen artean dago integrazio paisajistikoa eta ekologikoa).

Programa horretan bertan eta lotuneak eraikitzeko eta/edo berrantolatzeko azpiprogramaan, Arabako Foru Aldundiak, Errepideen Plan Integralarekin bat etorriz, A-1 eta A-2134 errepideen arteko lotura osatzeko proposamen bat sartzea proposatu du, eta, horrekin batera, A-132 eta N-104 errepideen arteko lotura egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorrean eta PIKAn jasota dagoena.

Lehentasunezko Intereseko Sarean, N-104 errepidean zentratzen dira ahalmena handitzeko eta bidegurutzeak eta sarbideak handitzeko jardunak; zehazki, Arkauti eta Venta del Patio artean, 356,30 KP eta 363,45 KP artean, barnean hartuta A-3110 errepideko maila desberdineko lotura eta Ilarratzako eta Mataukoko saihesbideak. Era berean, A-1 errepidearen eta AP-1 autobidearen arteko lotura bi noranzkoetan berrantolatzea proposatzen da Armiñonen, bidebanatzea zein elkargunea hobetuz.

Programa horretan barnean hartzen da, batetik, N-622 errepidearen tarte bikoiztua autobia bihurtzea, sarbideak berrantolatuta eta kontrolatuta, A-624 eta A-2521 errepideak konektatzeko zerbitzu-bide bat eraikitzearekin —N-622 autobiaz gain—, eta, bestetik, Etxabarri Dibiña eta Ihurreko loturak berrantolatzea, A-1 eta AP-1 errepideen arteko jarraitutasuna bermatzeko eta konexio horren segurtasuna hobetzeko.

Egokitzapeneko programaren barruan, N-240 errepidea, Legutio eta Bizkaiko muga artean, egokitzea aurreikusten da.

8.1.2 Bizkaia

<u>Bilboko Eremu Metropolitarrean, honako ibilbide hauetan oinarritzen dira jardunak</u>:

A-8 autobian identifikatutako ahalmen-arazoak konpondu beharko dira, Kantabriarantz hirugarren erreia osatuta, Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidearen Ic faseak Arenako zubibideraino aintzat hartzen duen ahalmena handitzeko jardunarekin. Arenako zubibidetik El Hayarainoko hirugarren erreiaren jarduna, berriz, Sustapen Ministerioak Kantabrian luzapena ematearen mende dago. Hegoaldeko Soluzioan, eta Larraskitu - Juan Garai tartean identifikatutako ahalmenik ezaren arazoa ebazteko, aintzat hartu da Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea AP-68 autobideraino ixtea, Peñascal -Venta El Alta tartean (Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidearen Ib fasea). Horrek azpiegitura horretan egunean 1.500-2.000 ibilgailu inguru gehiago zirkulatzea ekarriko du, eta tarte berriak egunean 3.200 ibilgailuko intentsitatea izango du; hartara, trafikoaren intentsitatea nabarmen jaitsiko da A-8 errepidearen eta Txorierriko korridorearen tarte paraleloetan.

Hegoaldeko Soluzioan, A-8 errepidearen gaineko zuzeneko jardun gisa, San Mameserako sarbide berriekin ebatzitzat jotzen da Juan Garai eta Kastrexana artean (Sabino Arana) identifikatutako problematika, eta Hegoaldeko Soluzioaren hiri-integrazioa Errekaldeko Saihesbidearekin osatu beharko da.

N-637 errepidean, Lamiakoko ibai azpiko azpiegitura berria nahitaezko jardun gisa planteatzen da ahalmen handiko metropoliko bide-sarearen defizita ebazteko, betiere itsasadarraren bi ertzak lotzeari dagokionez. Horrez gain, proposamen horrek Rontegiko zubiko eta Avanzadako trafiko-kargak arinduko lituzke eta nabarmen hobetuko lirateke itsasadarraren bi ertzen arteko konexioak, Uribe Kosta eta A-8 autobia zuzenean lotuz, Leioatik pasa behar izan gabe.

Azpiegitura horrek, halaber, itsasadarraren Eskuinaldea Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidean txertatuko luke, hau da, iragaitzazko eta sarrerako trafikoaren biltzaile handian txertatuko luke, ahalmen handiko bide-sarearekin zuzenean lotuz.

Itsasadarraren ertzen arteko konexioen azterketan historikoki esku artean izan diren balizko aukeretarako (Lamiakoko ibai azpiko biderako eta Axpeko zubirako) egindako modelizazioa abiapuntu izanik, ondorioztatu da ibai azpikoak onura argiak dituela trafikoa erakartzeari dagokionez, bidaia-denborak murrizteari dagokionez eta gaur egun metaketa-arazoak dituzten beste ibilbide batzuetan (BI-637) trafikoa deskargatzeari dagokionez. Horrenbestez, aukera hori hautatu da Planaren proposamen gisa. Axpeko zubia, beraz, soluzio osagarri gisa geratuko litzateke; beharrezkoa izanez gero, aurrerago, Plan honen indarraldiaz kanpo, gauzatzeko aukera gisa geratuko litzateke.

Lamiakoko gurutzagune berri horrek egunean 50.000 ibilgailu inguru hartuko lituzke, eta Rontegiko zubian gutxi gorabehera egunean 45.000 ibilgailu inguru gutxiago ibiltzea ekarriko luke. Era berean, egunean 40.000 ibilgailu inguru murriztuko luke BI-637 errepideko (Avanzadako) trafikoa, ibai azpiko errepidera bideratzean Getxo - Leioa - Uribe Kosta eta Ezkerraldea, Kantabria eta AP-68 errepidearen arteko trafikoak. Gainera, Gurutzeta eta Barakaldo arteko A-8 errepideko tartean, egunean 29.000 ibilgailu inguruko trafiko-murrizketa eragingo luke.

Horrenbestez, jardun horrekin ebatziko dira Rontegiko zubian N-637 errepideak dituen ahalmen-arazo larriak eta BI-637 errepidearen egungo saturazioa, eta, gainera, ahalmen-erreserba zuzkituko da A-8 autobiaren tarterik kargatuenetako batean etorkizunean trafikoan izan daitezkeen hazkundeak hartzeko.

Bestalde, eragin positibo erantsi gisa, azpiegitura berri horrek Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidearen erabilera-maila gehituko du, gaur egun ahalmen potentziala lortzetik oso urrun baitago; horrek, halaber, A-8 autobiaren beste tarte metropolitar batzuetan trafikoa zertxobait murriztea ekarriko luke, Gurutzeta eta Larraskitu artean.

Edonola ere, kontuan izanik ingurumen metropolitar batean hain garrantzi handia duen horrelako azpiegitura bat pentsatzeko, diseinatzeko, bideragarri egiteko (ekonomiaren, ingurumenaren eta hirigintzaren arloan) eta eraikitzeko prozesuak denboran luze joko duela (8-10 urte) eta eskariaren/eskaintzaren (zerbitzu-mailaren) arazoak jada gaur egun gertatzen ari direla, komenigarria

ematen du Planean munta txikiagoko eta epe laburrerako beste soluzio bat aintzat hartzea eta, hartara, ibaiaren azpiko soluzioa zerbitzuan jartzeari beharrezko denbora ematea. Ildo horretan, Rontegiko zubiaren ahalmena handitzea eta Gurutzetako eta Kukularrako aldabideak hobetzea ere proposatzen da. Jardun horrek gaur egun Kukularrako aldabidean dagoen istripu-arazoa arintzeko aukera emango du.

N-634 errepidearen kasuan —Erletxe eta Ibarsusi arteko eraztun metropolitarreko barne-tartean, eta, Bolueta auzoan barrena Bilbora sartu arte, Galdakao, Basauri eta Etxabarri udalerriak zeharkatzen eta zerbitzatzen dituen korridorearen ardatz osagarritzat hartzeari dagokionez—, ez dira bide-eskaintza hobetzeko soluzioak aintzat hartu, baizik eta hiri-integrazioko eta bide-segurtasuneko jardunak, betiere ardatz osagarri integratua eta segurua lortzeko eta ingurune metropolitarrean korridoreko tokiko trafikoak banatzeko. Gainera, tarte horretan bertan, errepide horretatik Etxabarrirako sarbideak hobetzea ere hartu da aintzat.

N-634 errepideari dagokionez, korridorearen ardatz osagarri gisa edo bigarren mailako ardatz gisa baliagarria den Nocedal - El Haya tartean, bide-eskaintza hobetzeko jardunak proposatzen dira, hiri-integrazioko arazoei erantzuteko eta plataformaren zabalera-defizitaren ondoriozko bide-eskaintzako arazoei erantzuteko:

Trazadura hobetzea eta plataforma handitzea El Casal - Las Carreras tartean.

Las Carrerasko saihesbidea.

<u>Foru Lurraldearen gainerakoan, jardun hauek hartu dira aintzat:</u>

Obra Nagusi gisa eta azpiegitura berrien azpiprograman, Bizkaian beste azpiegitura bat eraikitzea planteatu da, N-240 errepidean Boroa eta Apario artean autobiaren ezaugarriak izango dituena eta errepide konbentzional baten ezaugarriak izango dituena Igorreraino —guztira 8,78 km—.

Etorkizunera begira, Gerediaga eta Elorrio artean, 7,2 km, zerbitzuan dauden N-636 errepideko jardunak osatu beharko lirateke, eta zeharkako ardatz horretan, Elorrio eta Kanpanzar artean, 5,2 km-ko beste azpiegitura bat eraiki beharko litzateke. Azpiegitura horrek errepide konbentzional baten izaera izango luke eta zeharkako konexio egokia eskainiko luke Durango eta Beasain artean. Gainera, Kanpanzar mendatean ibilgailu moteletarako bide bat gauzatzea aurreikusten da.

Ahalmena handitzeko azpiprogramaren barruan, proposatzen da hirugarren erreiak osatzea AP-8 autobidean, Bilbo eta Durango artean, Larrea eta Etxano artean gauzatzeko dagoen tartearen eraikuntzarekin.

Loturak eraikitzeko eta/edo berrantolatzeko azpiprograman, proposatzen da N-240 errepidean Usansolo - Bedia tartea berrantolatzea eta, AP-8 autobiderako irisgarritasuna hobetzera begira, beste lotura bat eraikitzea Euban eta beste bat Zaldibarren (Okango), AP-8 autobidearen eta N-634 errepidearen arteko konektagarritasuna hobetzeko. Horrez gain, N-634 errepidean beste lotura bat antolatuko da Boroako industrialdera iristeko.

Bidegurutzeak berrantolatzeko eta sarbideak kontrolatzeko azpiprograman, Lehentasunezko Intereseko Sarearen barruan proposatzen da Zornotza - Gederiaga tartea antolatzea N-634 errepidean.

Zirkulazio motelerako bideen eraikuntzaren arloan, Eletxondo - Barazar tartean jardungo da N-240 errepidean. N-634 errepidean, Ermuko saihesbidea - Areitio - Zaldibar tartean, ere hauteman dira abiadura-jaitsierako arazoak; alabaina, AP-8 autobidearen eta N-634 errepidearen artean proposatutako konektagarritasunaren hobekuntzarekin —Okangoko lotura— eta eskaria kudeatzeko tarifen arloko neurriekin espero da tarte horretan eskaria murriztea eta, hartara, zirkulazio motelerako erreiaren eraikuntzaren beharra luzaezina izatea. N-634 errepidean, hiri-integrazioko hobekuntza orokorrak planteatzen dira Nocedalen eta El Casalen, eta errepidea egokitzea eta zabaltzea aurreikusi da El Casalen eta Las Carrerasen, baita Las Carrerasen saihesbidea eraikitzea ere —hobekuntza argia ekarriko luke ibilbide horren baldintzetan—.

Azkenik, N-629 errepidean Lanestosako saihesbidea eraikitzea planteatzen da —saihesbide horren eraikuntza Sustapen Ministerioaren ardura da—.

8.1.3 Gipuzkoa

Obra Nagusiko programan, eta azpiegitura berrien azpiprograman, planteatu da AP-8/AP-1 errepidean, Irungo Ventas auzoa eta Frantziako muga artean, Irungo Hegoaldeko Saihesbidearekiko lotura bat eraikitzea Txenperenean (Oinaurre). Helburua izango da, lehen fase batean, korridorearen osotasunaren funtzionaltasuna hobetzea eta GI-636 errepideko trafikoa arintzea.

AP-8 errepidean, eta ahalmena handitzeko azpiprogramaren barruan, proposatu da Zarautz eta Orio artean hirugarren erreia eraikitzea. Horrez gain, zirkulazio motelerako erreien azpiprograman planteatu da Zarautz - Meaga - Oikia - Bedua - Zumaia - Itziar - Mendaro arteko tarteetan zirkulazio motelerako erreiak eraikitzea, autobide horren ahalmena gehitzeko soluzio gisa. Izatez, kontuan izan da trafikoa gehituko dela bertan, N-I errepidean bidesaria ezarri ostean. Era berean, eta trazadura hobetzeko eta plataforma handitzeko azpiprograman, proposatu da AP-1 autobidearen Bilborako eta Donostiarako sarbideak hobetzea Maltzagan. Halaber, 407 eta 408 KPen arteko bihurguneak zuzentzea proposatzen da Etzegaraten, Gasteizerako noranzkoan, N-I errepidean.

N-636 errepidean gaur egun Antzuola eta Bergara artean eraikitzen ari diren tartea amaituko da. Azkenik, aurreko jardunen ondorioz, eta trenbide bidezko garraioarekiko intermodalitatearekin lotuta, Ezkio-Itsasoko lotura eraiki beharko da. Behin ahalmen handiko errepide bihurtuta, Zeharkako Ardatz horrek erakarriko ditu Debagoienetik eta Goierritik Durangorantz eta Bilboko Eremu Metropolitarrerantz zuzentzen diren trafiko-fluxuak, baita gaur egun Donostia eta Gasteiz arteko erlazioetan N-I errepidea erabiltzen duten trafikoen zati bat ere —oro har, eta batik bat Debabarreneko, Debagoieneko eta Goierriko bidaia-denborak murriztuz—; nahiz eta Deskargako tartean bidesaria ezartzeak Gipuzkoako Ahalmen Handiko Sare osora banatuko duen trafikoa.

Galtzada bikoizteko azpiprograman, planteatu da N-638 errepidean Amute eta Hondarribia arteko tarte osoa hiri-bideko ezaugarriekin bikoiztea, bide horren ahalmena handitzearren.

N-I errepidean, lotuneak eraikitzeko eta/edo berrantolatzeko azpiprograman jarduketa puntualak planteatzen dira, A-15arekiko lotura hobetuz, Bazkardotik Tolosarako noranzkoan (Andoain), Lasarteko lotunearen birmoldaketa eta Irurako lotunearen laugarren adarra eraikiz.

Azkenik, sarbideak berrantolatzeko eta kontrolatzeko azpiprogrametan eta N-634 errepidean bi biribilgune berri eraikitzea proposatzen da Usurbilen, Usurbilgo herrigunerako sarbidean (2,9 KP) eta Txokoalde auzorako sarbidean (4,2 KP), gune horretako hiri-irisgarritasun globaleko arazoak konponduz.

N-634 errepidean, halaber, N-634 errepidetik AP-8 errepidera aldatzea bultzatuko da, eta biribilgune bat eraikiko da GI-631 errepidearekiko bidegurutzean, Arroan. N-634 errepidean ere, Hiri Saihesbideen Programan, Zarauzko eta Orioko saihesbideak eraikitzea proposatzen da.

8.2 Oinarrizko Sarean jarduteko proposamenak

8.2.1 Araba

Obra Nagusiko eta Azpiegitura Berrietako programan, Arkautin A-132 eta N-104 errepideen arteko konexio berria eraikitzera mugatzen da Oinarrizko Sarerako aurreikusten den azpiegitura berria. Jardun hori ingurumen-kalitate txikiko testuinguruan kokatzen da, nahiz eta proiektuan aintzat hartuko diren nekazaritza-lurzoruen gaineko eraginak eta zarata-eraginak. Gainera, A-625 errepidean, Laudio eta Amurrio artean, galtzada bikoiztea planteatzen da, 9,32 km osatuta.

Loturak eraikitzeko eta/edo berrantolatzeko azpiprogramaren barruan, batetik, A-124 errepidean proposatzen da A-3226 errepidearekiko konexioa eta sarbideen kontrola gauzatzea, Errioxako mugaraino, eta, bestetik, A-624 errepidean planteatzen da A-3618 eta A-3620 errepideen elkargunea lotura bihurtzea (Los Olmosko elkargunea).

Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorrak Oinarrizko Sareko errepide hauen zenbait tarteren egokitzapena planteatzen du:

- A-124 errepidea; Arabako mugaren eta egokitzapenaren hasieraren artean, 54,31 KP eta 55,65 KP artean, eta egokitzapenaren amaieraren eta trazadurako saihesbidearen hasieraren artean, 57,00 KP eta 59,54 KP artean.
- A-132 errepidea; A-4159 errepideko bidegurutzetik eta Egiletaraino, jada egokituta dauden tarteekin trazadura-homogeneotasuna lortzeko.
- A-623 errepidea; Legutio eta Bizkaiko muga artean. Proiektua Urrunagako urtegiaren isatsaren ertzen gainetik doa zenbait kilometroz, betiere ertzeko erlazio ekologikoak errespetatuz.
- A-624 errepidea; Altube eta Ziorraga artean, Amurrio eta Arespalditza artean eta Artziniega eta Burgosko muga artean.
- Gainera, Artziniegako zeharbidea egokitu behar da eta zirkulazio motelerako erreia eraiki behar da Amurrioko ekialdeko saihesbidearen eta A-4602 errepideko bidegurutzearen artean.
- A-625 errepidea; Urduñako udal-barrutiko mugatik Saratxoraino, trazadurako saihesbide eta proposamen gisa, 357,30 eta 354,22 KPen artean, eta Saratxotik Amurrioko ekialdeko saihesbidearen hasieraraino, A-624 errepideko loturan.
- A-627 errepidea; bi tartetan, A-3006 errepideko bidegurutzearen eta A-3002 errepideko bidegurutzearen artean eta azken bidegurutze horretatik Gipuzkoako mugaraino, ibilbideari homogeneotasuna emateko eta AP-1 autobidearen ordezko errepidearen izaerari eusteko.

Azkenik, hiri-saihesbideen programaren barruan planteatu dira Bastidako saihesbidea (ingurumen-balio minimo handirik gabe) eta Guardiako saihesbidea (Guardiako aintziretan eta garrigetan eraginik sortu gabe), bi zeharbide horien gatazka-maila handia ebazteko.

8.2.2 Bizkaia

Eremu Metropolitarrean hautemandako arazo nagusia BI-637 errepidearen (Avanzadaren) auto-pilaketa izan da. Errepide horrek trafiko-pilaketako arazoak ditu goizeko puntako orduan Bilborako noranzkoan eta arratsaldeko puntako orduan Getxorako noranzkoan. Egungo autobiaren trazaduraren zati handi batek espazio-mugak dituenez gero eta, hartara, autobia horretan ahalmena handitzea ezinezkoa denez gero, arazo hori ebazteko azpiegitura berrien arloko bi jardun proposatu dira.

Lehenik, Lamiakoko ibai azpiko bideak Getxo - Leioa - Uribe Kosta eta Ezkerraldea - Kantabria - AP-68 arteko trafikoak berriro bideratzeko aukera emango du eta ordezko ibilbide bat eskainiko die auto-pilaketak dituzten BI-637 errepidearen erabiltzaileei eta N-637 errepidearen (Rontegiko zubiaren) erabiltzaileei. Hartara, jardun horrek nabarmen murriztuko du trafikoa Artatzako biribilgunearen eta Kukularrako N-637 errepideko loturaren arteko BI-637 errepideko tartean, eta puntako orduetan trafiko hori orekatuko du, Txorierritik datozen trafikoak ibaiaren azpiko bide berrira bideratuta —bidaiari horiek gaur egun puntako orduetan nagusi den trafikoaren kontrako noranzkoan erabiliko dute BI-637 errepidea—.

Bigarren, eta BI-637 errepidearen egungo auto-pilaketa hobetzeko jardun osagarri gisa, Bolue eta Unibertsitatearen artean beste azpiegitura bat eraikitzea planteatu da. Azpiegitura hori ordezko ibilbide bihur daiteke itsasadarraren Eskuinaldetik Txorierrira zuzentzen diren trafikoak bideratzeko (Aireportua eta Parke Teknologikoa), eta BI-637 errepideko trafikoaren zati bat deskarga dezake.

BI-628 errepidean, Kueto - Galindo tartea bikoiztea planteatzen da, Ballontiko Korridorearen funtzionaltasuna osatzeko.

BI-631 errepidean, zenbait jardun hartu da aintzat ibilbide osoan zehar. Eremu metropolitarrean Ibarsusi eta Miraflores arteko Ekialdeko Saihesbidea eraikitzea proposatzen da. Ez da posible ikusten Planaren denbora-horizontearen barruan gauzatzea Otxarkoaga eta Galbarritu arteko saihesbide bereko tartea, bideragarritasun zailekoa baita. Eremu metropolitarraz kanpo, Meñaka - Bermeo tartean ibilbidea hobetzea planteatzen da.

BI-633 errepidean, Urberuaga - Berriatua tartean, beste azpiegitura bat eraikitzea proposatzen da, 7,5 kilometrokoa, baita Zubibarri - Iruzubieta tartean zirkulazio motelerako erreia eraikitzea ere.

Egokitzapeneko programan, trazadura hobetzeko eta plataforma handitzeko azpiprogramaren barruan, BI-630 errepideko Malabrigo - Turtzioz eta La Escrita - Ambasaguas tarteetan jardutea proposatzen da, guztira 7 km. Horrez gain, BI-630 errepidearen gaineko jardunak beste azpiegitura batekin osatzen dira BI-636 errepidea eta Malabrigo artean.

Bidegurutzeak berrantolatzeko eta sarbideak kontrolatzeko azpiprogramaren barruan, bide-segurtasuneko jardunak planteatzen dira BI-625 errepideko Ugao - Arrigorriaga tartean, ibilbidearen osotasunean jardun beharrik gabe. Izatez, AP-68 autobidearen emakida 2026. urtean amaitzen da, eta autobidea itzultzearen gainean hartzen den erabakiaren zain geratuko da —itzultze horrek korridorearen kudeaketa integrala ahalbidetuko luke—.

BI-636 errepidean, Balmasedako saihesbideko zirkulazio motelerako erreia amaitzea hartu da aintzat.

Azkenik, BI-635 errepidean Zornotza - Gernika ibilbidea hobetzea planteatu da, Gorozika - Ariatza tarteko azpiegitura berriarekin eta Muxikako saihesbidearekin.

8.2.3 Gipuzkoa

GI-631 errepidean, Azkoitia - Zumarraga tartean, trazadura eta sekzio eskaseko arazoak ebaztea proposatzen da, tarte osoan plataforma handitzeko eta trazadura hobetzeko proiektu baten bitartez. Zestoako saihesbidea eraikitzea ere planteatzen da.

GI-20 errepidean istripu-tasa murrizteko eta errepide horrek hiri-bidearen izaera handigoa izateko proiektuak egin beharko dira. Donostialderako irisgarritasuna hobetuko da Illunbeko, Marrutxipiko eta Zorroagako loturak birmoldatuta.

GI-638 errepideko bihurguneak zuzentzea eta Deba - Mutriku tartea hobetzea planteatzen da.

8.3 Sareko arriskuen ondorioz jarduteko proposamena

Arriskuen ondorioz jarduteko beharra duten tarteen taula abiapuntu izanik, zehatz-mehatz aztertu dira tarte horiek, eta, lehenik eta behin, zehaztu da egiteke dauden Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorraren jardunak egokiak diren diagnostikatutako problematika ebazteko. Uste bada egiteke dauden jardun horiek ez dutela problematika ebazten, edo tarte jakin batean gauzatzeko jardunik ez badago, Planaren proposamenen amaierako taulan proposatuko dira txertatu beharreko arlo horietako jardun berriak.

Horrenbestez, ondoren eransten den taulan, ezartzen da arriskuen ondorioz jarduteko beharra duten tarteetako bakoitzean egiteke dauden jardunek ea arazoa ebazten duten eta, hala izan ezean, beharrezko jardun berriak zein diren.

ARABA											
TARTEA	ERREP.	Has. KP	Am. KP	L	MOTA	ERAGILEA	TARTEAREN IDENTIFIKAZIOA	TARTEAREN EZAUGARRIAK	TARTEAN EGITEKO DAUDEN JARDUNAK	EBAZTEN DU?	BEHARREZKO JARDUN BERRIAK
1	N-1/A-1	351,0	353,0	2,00	TALKAK	DESKUIDUA	HIRUSTA LOTURA OSOA, N-622 (IHURREKO LOTURA)	Ihurreko hirusta-lotura osoa	--		LOTURA ERAIKITZEA ETA/EDO BERRANTOLATZEA
	N-622	4,3	5,6	1,5	TALKAK	DESKUIDUA ETA ABIADURA DESEGOKIA	GASTEIZ / A-1 (IHURREKO LOTURA)				
2	N-1/A-1	354,4	356,5	2,10	TALKAK	DESKUIDUA	HIRUSTA LOTURA OSOA, A-1/N-240 UZTA BIDEEKIN BI AUTOBIETAN (GAMARRAKO LOTURA)	Gamarrako hirusta-lotura osoa	--		2014an garatutako jardunak dituen tartea. Jarraipena
3	N-104	355	357	2	TALKAK	ARAU HAUSTEA ETA DESKUIDUA	A-2134 ERREPIDEKO BIDEGURUTZEA ARKAUTI ETA ILARRATZA ARTEAN	Bidegurutzea	MAILA DESBERDINEKO LOTURA BIHURTZEA, N-104 ERREPIDEKO AHALMENA HANDITZEA ETA ILARRATZAKO SAIHESBIDEA	BAI	
4	N-124	25,5	30,3	4,8	TALKAK	DESKUIDUA	LACERVILLA - LACORZANILLA industrialdea (industrialderako sarbidea eta A-2120 errepidea, AP-68rako loturarekin)	Errepide konbentzionaleko tartea, trazadura zuzen samarrekoa, errepiderako zuzeneko sarbideak dituena eta trafiko handia duena, ibilgailu astunen trafiko handiarekin.	N-124 ERREPIDEA AUTOBIA BIHURTZEA, N-I ERREPIDETIK ERRIOXAKO MUGARAINO, BRIÑASEN	BAI	
5	N-124	32,5	33,5	1	IRTEERAK ETA TALKAK	DESKUIDUA	ZAMBRANA - GATZAGA BURADON	Errepide konbentzionala, Zambranako saihesbidearen amaieraren eta AP-68 autobidearekiko tarte paraleloaren artean	N-124 ERREPIDEA AUTOBIA BIHURTZEA, N-I ERREPIDETIK ERRIOXAKO MUGARAINO, BRIÑASEN	BAI	
6	N-124	37,3	38,7	1,4	TALKAK	HAINBAT	CONCHAS DE HARO - BRIÑAS TUNELA	Errepide konbentzionaleko tartea, A-2120 eta A-3122 errepideekin	N-124 ERREPIDEA AUTOBIA BIHURTZEA, N-I ERREPIDETIK ERRIOXAKO MUGARAINO, BRIÑASEN	BAI	
7	N-240	16,0	20,5	4,5	TALKAK ETA BIDE IRTEERAK	ABIADURA DESEGOKIA	A-623 - ELOSU - OLLERIETA BIDEGURUTZEA	Errepide konbentzionaleko tartea, lerrokadura motzak eta erradio txikiak (200 m) dituena lerrokadura zuzen eta luzeen artean, eta sestra-aldaketak dituena. Urrunaga urtegiaren gaineko zubiak eta bidegurutzeak A-623 errepidearekin, 18,83 KP. Errepiderako zuzeneko sarbideak.	N-240 ERREPIDEKO AHALMENA HANDITZEA LEGUTIORAINO ETA A-623 ERREPIDEKO LOTURA BERRANTOLATZEA. N-240 ERREPIDEA EGOKITZEA ETA HOBETZEA 16,6 KP ETA 23,8 KP ARTEAN	BAI	
8	N-622	5,6	7	1,5	BIDETIK IRTETEA ETA TALKAK	DESKUIDUA	ARANGIZ - GASOLINDEGIA	Arangizko irteeraren eta gasolindegirako zerbitzu-bidearen arteko autobia tartea (zenbait galtzadatan)	--		SARBIDEAK BERRANTOLATZEA
9	A-124	59,4	60,5	1,1	BIDE IRTEERAK	HAINBAT	PAGOS DE LEZA	Hiri arteko errepide konbentzionaleko tartea, bihurguneak modu jarraituan dituena eta sestra-aldaketa, bideen konexioan, 59,78 KPan.	--		SARBIDEAK BERRANTOLATZEA
10	A-124	62,8	63,8	1,0	BIDE IRTEERAK	HAINBAT	GUARDIARAKO IRITSIERA		GUARDIAKO SAIHESBIDEA	BAI	
11	A-124	72,8	77,8	5	TALKAK ETA BIDE IRTEERAK	HAINBAT	EL CARRASCAL INDUSTRIALDEA - CASABLANCA INDUSTRIALDEA - ERRIOXAKO MUGA	Errepide konbentzionaleko tartea, zuzengune luzeak dituena erradio txikiko lerrokadura kurbatuen artean, egokitu gabeko sarbideak dituena eta hasierako tartean bihurguneak modu jarraituan dituena.	A-3226 ERREPIDEKO LOTURA ETA SARBIDEEN KONTROLA ERRIOXAKO MUGARA ARTE	BAI	
12	A-623	18,5	20,8	2,3	BIDE IRTEERAK	HAINBAT	LEGUTIO - BIZKAIA (URRUNAGAKO URTEGIA)	Hiri arteko errepide konbentzionaleko tartea, bihurguneak dituena	LEGUTIO - BIZKAIA TARTEA EGOKITZEA A-623 ERREPIDEAN (16,61 KP - 22,65 KP)	BAI	
13	A-624	26	27,5	1,5	BIDE IRTEERAK	ABIADURA DESEGOKIA	ALTUBE - ZIORRAGA	Errepide konbentzionaleko tartea, lerrokadura kurbatua duena eta irakurgarritasun-arazoak eta zoladuran itsaspen-arazoak dituena. Ertzetan sarbideak ditu eta nolabaiteko malda.	A-624 ERREPIDEKO TARTEA EGOKITZEA ETA HOBETZEA	BAI	

ARABA											
TARTEA	ERREP.	Has. KP	Am. KP	L	MOTA	ERAGILEA	TARTEAREN IDENTIFIKAZIOA	TARTEAREN EZAUGARRIAK	TARTEAN EGITEKO DAUDEN JARDUNAK	EBAZTEN DU?	BEHARREZKO JARDUN BERRIAK
14	A-625	354,2	357,9	3,7	TALKAK ETA BIDE IRTEERAK	DESKUIDUA	SARATXO - AMURRIO	Errepide konbentzionaleko tarte gorabeheratsua, lerrokadura luze zuzen baten ondoren, trazadura galerak eta bidegurutzeak dituena, bihurgune osteko mugimendu kanalizatuekin.	A-625 ERREPIDEA EGOKITZEA ETA HOBETZEA 358,31 KP (AMURRIOKO EKIALDEKO SAIHESBIDEAREN HASIERA) ETA 354,22 KP (BIZKAIKO MUGA) ARTEAN	BAI	
15	A-625	360,8	363,5	2,7	TALKAK ETA BIDE IRTEERAK	DESKUIDUA	INDUSTRIAGUNEKO LOTURA - MARKIJANAKO LOTURA (AMURRIO - OLABEZAR), MURGARAKO A-3622 ERREPIDEAREKIKO KONEXIOA	Errepide konbentzionaleko tarte gorabeheratsua, luzera txikiko zuzenguneen bidez lotutako lerrokadura kurbatuak dituena eta bidegurutzea duena 361,5 KPan.	LAUDIO - AMURRIO GALTZADA BIKOIZTEA	BAI	
16	A-625	363,7	366,9	3,2	TALKAK	DESKUIDUA ETA ABIADURA DESEGOKIA	LUIAONDOKO SAIHESBIDEA	Errepide konbentzionaleko tartea, trazadura desegokia duena, lerrokadura kurbatua duena, irakurgarritasun-arazoak dituena eta zoladuran itsaspen-arazoak dituena.	LAUDIO - AMURRIO GALTZADA BIKOIZTEA	BAI	
17	A-625	366,1	368	1,9	TALKAK	HAINBAT	LAUDIO - GARDEA	Errepide konbentzionaleko tartea Gardeako loturaren aurretik, Laudion	LAUDIO - AMURRIO GALTZADA BIKOIZTEA	BAI	
18	A-625	368	369	1	TALKAK	DESKUIDUA	LAUDIOKO SAIHESBIDEA - 1	Laudioko saihesbideko errepide konbentzionaleko tartea	LAUDIO - AMURRIO GALTZADA BIKOIZTEA	BAI	
19	A-627	16	18,3	2,3	BIDE IRTEERAK	ABIADURA DESEGOKIA	GOIAIN - LANDA	Errepide konbentzionaleko tartea, malda handiko zonan bihurguneak dituena eta A-3002 errepidearekiko bidegurutzea duena ikuspen urriko gune batean.	A-3006 ERREPIDEAREN ETA A-3002 ERREPIDEKO BIDEGURUTZEAREN ARTEKO TRAZADURA EGOKITZEA ETA HOBETZEA	BAI	

BIZKAIA											
TARTEA	ERREP.	Has. KP	Am. KP	L	MOTA	ERAGILEA	TARTEAREN IDENTIFIKAZIOA	TARTEAREN EZAUGARRIAK	TARTEAN EGITEKO DAUDEN JARDUNAK	EBAZTEN DU?	BEHARREZKO JARDUN BERRIAK
1	A-8	113,59	120,49	6,9	TALKAK, BIDE IRTEERAK	HAINBAT	BASURTO - EKIALDEKO SAIHESBIDEA LOTURA	Sarbide kontrolatuko autobidea. Bi noranzkoetan. S itxurako bihurgune ugariko tartea eta 80 Km/h abiadura seinaleztatuta duena	METROPOLIAREN HEGOALDEKO SAIHESBIDEA. Ib FASEA	BAI	
2	A-8	119,82	122,92	3,1	TALKAK, BIDE IRTEERAK	HAINBAT	ZORROTZA	Autobiako tartea, C itxurako bihurguneak segidan dituena eta trazadura-koordinazioaren arloko arazoa duena oin-planoan, segidako erradioen erlazio okerraren ondorioz. (Zorrotzako bihurguneak)	METROPOLIAREN HEGOALDEKO SAIHESBIDEA. Ib FASEA	BAI	
3	A-8	134,69	136,92	2,23	GALTZADA IRTEERA	HAINBAT	ARENAKO ZUBIBIDEA ETA LOTURA (MUSKIZ)	Sarbide kontrolatuko autobidea. Bi noranzkoetan. Koordinazio eskasa du oin-planoko trazaduran. S itxurako bihurguneak, dagokien abiadura espezifikoa baino abiadura baimendu handiagoa dutenak.	METROPOLIAREN HEGOALDEKO SAIHESBIDEA Ic FASEA. "Arenako zubibidea eta lotura"	BAI	
4	A-8	138,02	139,219	1,199	GALTZADA IRTEERA	ABIADURA DESEGOKIA	EL HAYA	Sarbide kontrolatuko autobidea. Beherako noranzkoa. S itxurako bihurgune-segida duena, eta dagokion abiadura espezifikoa baino abiadura baimendu handiagoa duena.	--		Kostu txikiko neurriak. Jarraipena
5	N-240	15,82	19,32	3,5	TALKAK, BIDE IRTEERAK	DESKUIDUA	LEMOA - IGORREKO SAIHESBIDEA	Errepide konbentzionaleko tartea, zeharbideak dituena Lemoan.	LEMOA - IGORRE ARDATZ ERRADIALA / BOROA - LEMOA - IGORRE AUTOBIA	BAI	
6	N-240	31,02	32,82	1,8	GALTZADA IRTEERA	DESKUIDUA ETA ABIADURA DESEGOKIA	ZEANURI SAIHESBIDEA - BARAZAR	Iragaitzazko errepide konbentzionaleko tartea, Zeanuriko saihesbidearen eta Barazarko igoerako tartearen artean, oin-planoko trazaduraren arloko koordinazio-problematika duena.	--		Kostu txikiko neurriak. Jarraipena
